

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisiko, intelektual eta finantza-baliabideak beharrezkoak dira.

Baliabide fisikoen artean, beharrezko materiala kimikariekin adostutako material biodegradablea eta hau lortzeko beharrezkoa dugun materiala eta mosketoiak dira. Hau fabrikatzeko lokala erabiliko dugu, produktua zabaltzeko ordenagailua. Azkenik laborategi bat erabiliko genuke kimikarientzat.

Baliabide intelektualen artean berriz, Danelen informatikarako gaitasuna, Maddiren harremanetarako eta arazoaren aurrean laguntzeko eta planifikatzeko gaitasuna eta azkenik Saioa eta Xabiren sormena eta ideia dauzkagu.

Finantza-baliabideak eskasak izango lirateke, murriztuak oso. Gure aurrezki propioez baliatuko ginateke, eta kausa sozial bati buruz ari garenez, babes sozial bat izateko ideiarekin, babes ekonomiko behintzat txiki bat izatea ere esperoko genuke.

